

«Hazi bakarrik ez», esplikatu digu Nerea Zubiak. «Hazi eta sa-soiz hobetu. Mendira joatean, esaterako, iritsi berriak direnean, oso zaila egiten zaie besteen erritmoari eustea, baina hemen aste batzuk egin orduko, askoz ere errazago ibiltzen dira. Sistema immunologikoa ahulduta dutelako gertatzen da hori».

KRISIAREN ERAGINA

Osasunaren Mundu Erakundeak berak gomendatzen du Txernobyngo zentral nuklearrak kalte-tutako umeak kutsatutako eremutik ateratzeko, euren osasunak hobera egin dezan. Horixe egiten dute Chernobil Elkar-tea, Chernobilen Lagunak eta Chernobileko Umeak erakunde-ek, hemengo instituzioen lagun-tzarekin. Baina krisi ekonomiko-ak arlo horretan ere izan du eraginik eta orain urte batzuk 400 ume inguru ekarri izan bazi-tuzten, iaz ez ziren 300era iritsi.

«Aurten jende gutxiago ani-matu da; ulertzekoa, krisia dela-eta. Bidaia guk ordaindu behar dugu, eta batzuek ezin dute», es-plikatu du Linazisorok.

Chernobileko Umeak elkarte-an ere hemengo familiek or-daindu beharreko kopurua mu-rrizten saiatu dira. «600 eurotik 500era jaitsi dugu, bestelako di-tu iturriak bilatuta, aire konpai-nia aldatuta, gastu batzuk ken-duta, zergak arintzeko urratsak emanda... Ume bat ekartzeak 700 euro inguru balio ditu, eta gero, gainera, haurra mantendu egin behar dute familiek bi hila-betez», adierazi du Angulok.

Umeren bat hartzeko prest daudenek aipatu elkarteekin ja-rri behar dute harremanetan. Hori bai, aurtengo udan, agian, umerik gabe geratuko dira, da-goeneko beranduegi da-eta, le-geak behar bezala betetzeko epeak oso zorrotzak baitira.

Kieveko agintariek sekulako garrantzia ematen diote Txernobyngo umeak hemen hartzeko proiektuari, Valeri Shvets Ukrai-nak Estatu espainolean duen en-baxadako idazkariak Chernobil Elkarteko kideei adierazi dienez. «Gure ekimenarekin jarrai deza-gun eskatu digute, eta esan dute krisi politikoak ez duela eragi-nik izango».

Natasha Vila eta bere seme-alabak Chernobileko Umeak elkarteko kideekin eta Larisa Kulik eta Kola bertako laguntzaileekin. Vilaren lau seme-alaba ekarri izan dituzte Euskal Herrira.
CHERNOBILEKO UMEAK



Langile mugimendua

Unai Belaustegi

Langile mugimenduari buruz
Eric Hobsbawm
Britainia Handi-

ko historialari eta komunista ospe-tsuak idatzi zuen liburua irakurtzen ari naiz, eta urte dezente igaro badi-ra ere, egungo egoerarekin konpara-ketak egitera bultzatzen nau etenga-be. Liburuaren pasarteetako batean, Leninen “berezkotasunaren” teoria bere azalpenekin osatu zuen. Leni-nek, kontzientzia sindikalaren eta kontzientzia sozialistaren arteko ba-naketa egin zuen. Kontzientzia sin-dikala, talde antolatu baten baitan langile mugimenduan berez sor-tzen den kontzientzia litzateke, ara-zo ekonomikoei nolabaiteko eran-tzun bat eman nahi zaionean. Esperientzia horretatik, ordea, ez da sekula kontzientzia edo estrategia sozialistarik sortuko, horretarako klaseen arteko harremana/talka be-harrezkoa baita.

Hobsbawmek, Leninek aipatzen dituen bi ikuskerak uztartu zituen. Batetik, langile klaseak berez alda-rrikapen zehatzak betetzen dituela, eta gainera sistemarekiko aurkako-tasun bat adierazi ohi duela, nahiz eta bigarren hau, krisi garaian ezik, oso ahula izan. Beraz, sistema kapi-talista egonkorra den testuingu-ruan, langile mugimendua kapita-lismoa onartzera iristen da.

Hobsbawm eta Leninen teoriek krisi garaian beste esanahi bat har-tuko lukete: sistema kapitalista lan-gileen gutxieneko beharrak asetzer-a iristen ez denean, aldarrikapen ze-hatzen gainera sistemarekiko aur-kakotasuna nagusituko da. Zenbait historialarik langile klasearen he-riotza duela hamarkada batzuk ira-garri zuten, langileen aniztasuna bi-tarteko, baina langile klaserik ezean ere, milioika langabe dituen Esta-tuan gehiengo bat bil dezaketen ezaugarri asko daude. Orduan, zer-gatik sistemaren aurkako aldarrika-penek ez dute oraindik bi autore hauek aurreikusi zuten oihartzunik hartu? Nahiz eta haserrea sentitu, sistema bera uste baino barneratua-go dugulako guztiok. •